

2026KO GAZTETXEKEREN KANPAINAREN OINARRIAK

1. XEDEA

Deialdi honen xedea GazteTxekes 2026 kanpainaren baldintzak arautzea da. Ekimen hau Hirukide – Euskadiko Familia Ugarien Federazioak bultzatzen du, bazkide diren gazteen prestakuntza sustatzeko, 50 euroko prestakuntza-txeke bat emanaz.

2. HARTZAILEAK

Kanpaina honen onuradun izan ahal izango dira 15 eta 25 urte bitarteko gazteak, Hirukiden bazkide diren familietako kideak direnak eta erakundearekin ordainketak egunean dituztenak.

3. GAZTETXEKEAREN IZAERA

GazteTxekea 50 euroko balioa duen txeke izenduna da, pertsonala eta besterenezina, eta pertsona bakoitzari behin bakarrik emango zaio (Hirugazte bakoitzeko txeke bat).

4. HELBURUA

GazteTxekea aurrez aurreko edo online prestakuntzarako soilik erabili ahal izango da, kanpainak indarrean dirauen bitartean, honako modalitate hauetan:

- Musika, dantza edo arte-diziplinetako ikastaroak.
- Aisialdiko begirale edo sorosle ikastaroak.
- Hezkuntza- eta prestakuntza-izaera duten bestelako ikastaroak.

5. ATXIKITAKO ERAKUNDEAK

GazteTxekea kanpainara atxikitako Hirudendetan bakarrik erabili ahal izango da, dagokien ikonoarekin identifikatuta egongo direnak.

Zerrenda eguneratua esteka honen bidez kontsulta daiteke, udalerrriaren, hitz-gakoaren edo sektorearen arabera bilatzeko aukerarekin.

6. ESKAERA PROZEDURA

Interesdunek horretarako prestatutako online formularioa bete beharko dute.

Hirukidek informazioa egiaztatuko du, eta egiaztapena egin ondoren, GazteTxekearen zenbatekoa 24-48 lan-orduren barruan sartuko da.

7. BATERAEZINTASUNAK

Ez da GazteTxekea emango aurreko ekitaldietan GazteTxekearen onuradun izan diren pertsonari.

8. INDARRALDIA

GazteTxekes 2026 kanpaina 2026ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, edo aurrekontu-partida agortu arte.